

MERKATU SEGMENTUA

Gure enpresak zerbitzu desberdinak eskainiko ditu 3 adin taldeentzat: haurrak, helduak lagundu eta adinduen espezializazioa. Hauek izango dira gure merkatu segmentuak eta eskaintzen ditugun zerbitzuak:

Lehenengo taldea haurretaz arduratzen da. Adibidez, gurasoek ezin badu bere umetaz arduratu, hura zaindu, eskolara eraman edota etxeko lanak egiten lagunduko dion espezializatutako langile bat bidaliko diogu. Baita ere, urtebetetze eta animazio festak antolatzea eskainiko dugu. Gainera, elbarritasun fisikoa duten umeak laguntzeko ere prest egongo diren langileak eskaintzen ditugu.

Bigarren taldea helduak laguntzeaz arduratzen da eta hainbat laguntza mota eskaintzen ditugu hala nola, erosketak edota etxeko lanak (sukaldaritza, garbiketa, plantxa...) egiten laguntzeko espezializatutako langileak bidaliko ditugu.

Hirugarren taldea adinduetan espezializatutako sektorea da. Hauek, bigarren taldeko zerbitzu minimoa izango dute, hau da, etxeko lanak, garbitasun pertsonaleko laguntzak eta erosketak egiten lagundu. Horretaz gain, paseatzera eraman, eguneko bisitak egin edota asialdiarako zerbitzuak ematen dira.

Guzti honetarako langile zehatz batzuk bilatu ditugu, lan honetan espezializatuak daudenak. Hauek dira:

- Gizarte hezkuntza edo heziketan espezializatuta dauden langileak.
- Alor bakoitzean langileen esperientzien arabera banatu.
- Langile espezializatuak zerbitzu espezializatua eskainiko dute.
- Langilea, laguntzeko prest dagoena, borondatea, pazientzia, errespetua, bokazioa eta alaitasunak pizten duen mutil edota neska gazteak.